



## OPERAZIO AURREKOA

### Zer da ebakuntza aurrekoa?

Ebakuntza kirurgikorako prestatzeko egin beharreko zenbait proba dira, eta Anestesia-konsulta baino lehen egin behar dira.

Honako hauek dira:

- Odol-ateratzea analitikarako (Osasun zentroan ere egin daiteke).
- EKG.
- Beharrezkoa izanez gero, toraxeko erradiografia (RX)

### Nola etorri behar dut probara?

- Odola ateratzeko, BEHARREZKOA DA BARAURIK ETORTZEA; odola atera ondoren gosalduta ezazazu.
- Etorri arropa erosoarekin, ez ekarri apaingarririk, kremarik edo gorputzeko oliorik EKG egin aurretik.
- Erradiografiarako garrantzitsua da jakitea haurdun ote zauden: susmorik izanez gero, jakinarazi zerbitzuan miaketa egin aurretik.

### Proba non egingo didate?

- Odola eta Rx (beharrezkoa bada) aterako dira AUOko kanpo kontsultetako -1 sotoan.
- Hitzordua eskatzean, egiaztatu ondo egokitzen dela zeure ordutegira, ordu zehatz horretan azaldu beharko baituzu.
- Beharrezkoa da analisisien EKG eta Xiren bolantea/eskabidea ekartzea.
- Erradiografiaren bolantea Erradiologiako Zerbitzuaren mahaietan eman behar duzu, eta, deitu arte, zain egongo zara itxarongelan.

### Proba nola egingo didate?

- Odol-ateratzea (gehienetan) besoan edo eskuan ziztatuta egiten da. EKGa egiteko, beharrezkoa da gerritik gora biluztea: ohatilan etzango zara eta erizainak pegatina batzuk jarriko dizkizu bularrean eta gorputz-adarretan, zure EKGa detektatzen duen aparatu batera konektatuta.
- Erradiografia egiteko, gerritik gora biluziko zara kabina batean; aparatua dagoen salara sartuko zara erradiografia egiteko. Normalean, zutik egingo dizute eta bost bat minutu irauten du.

### Zer egin behar dut proba ondoren?

- Proba ondoren ez da zainketa berezirik egin behar.